

ABEL AMUTXATEGI

NIKO ETA **AMONA**
INTERGALAKTIKOA

Piramide hegalarien kasua

Ilustrazioak: Iván Landa

erein

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko martxoan

Liburuaren diseinua eta maketazioa:

A. Beltza

Irudiak:

Iván Landa

© Abel Amutxategi

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-091-9

L.G.: D 172-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

GOSARI BEREZIA



Zer egiten duzu zuk iratzargailuak eskola-egun batean jotzen duenean?

Nik alarma itzali, eta beste aldera jiratzen naiz ohean goizari azken lo kuluxka bat lapurtzeko.

Normalean, minutu horietako atsedena izaten da gozoena, nirekin ados egongo zara horretan. Eta minutu horietako ametsak, are gozoagoak. Lastima baretasun une horiek beti modu berdinean amaitu behar izatea: amak edo aitak nire logelako atea parez pare irekitzen dute, eta zuri ere ezaguna egingo zai-zun esaldi hauxe oihukatzen didate:


—Ohetik altxa zaitez, alferrontzi hori, ikastolara berandu iritsiko zara eta!

Baina goiz hartan ez nuen iratzargailua itzali.

Ez horixe!

Ohean jiratu eta berriz lo hartu beharrean, ziztu bizian jaiki eta familia osoarentzako goiz hartako gosari berezia prestatzen hasi nintzen.

Hau izan zen prestatu nuen menua:



Hagin artetik ura dariola zaude hau irakurrita, ezta?
Baita neu ere!

Ogi txigortuaren usaina izan zen, hain zuzen ere, ama esnarazi zuena.

Koltxoia eskuineko eskuaz haztatu, eta lasaitasun ederra hartu zuen aita oraindik ere bere ondoan zegoela ikustean. Izan ere, aitak bere sukaldaritzarako *trebetasuna* erakutsi nahi zigun bakoitzean, sukaldea gudaleku bat bezala uzten zuen. Eta ez zegoen hara sartzeko balioko zuen bandera zuririk!

Baina, horren ostean, amak oso galdera egokia egin zion bere buruari.

—Aita ez bada sukaldean ari dena... NOR DABIL HOR?!

Gurean hiru pertsona baino ez garenez bizi, argi zegoen nor izan zitekeen goiz hartako sukaldari gonbidatua: ni neu.

Niko.

Amona Gregorirekin batera, bere aurreko abenturan Payat printzearen urtebetetze-bizkotxoia berreskuratu zuen umea.

Zer diot nik umea: HEROIA!

—Zer dela eta esnatu zara hain goiz, Niko? —esan zuen amak arnasestuka, sukaldeko ate-albo batean bermatzen zelarik oreka hobeto mantentzeko.

Oraindik ere lotarako arropa zuen jantzita: aitar-
ren galtzontzillo loredu batzuk eta jadanik txikiegi
geratzen zitzaion Egiptoko kamiseta bat.

Amak beti nahi izan zuen arkeologo izan.

Piramideak, momiak, altxor ezkutuak... Bada-
kizu.

Baina amets hori lortzetik gertuen egon zen aldia
aitarekin Egiptora ezkon-bidaian joatear egon zire-
nean izan zen.

Amak sukaldeko atean paraturik jarraitzen zuen.
Eskuko su-itzalgailua ere eskuetan zuen, auskalo zer-
gatik. Agian, pentsatuko zuen sekulako hondamen-
dia aurkituko zuela bertan. Baina, izan zitekeene-
rako, uste dut dena nahiko txukun utzi nuela.

—Gaur txangoa dugu ikastolan eta etxetik apur
bat arinago irten beharko naiz. Añanako gatz hara-
nera goaz! Andereñoak esan digu basamortu zuri ba-
tera bidaiatzea bezala izango dela. Itzela izango da se-
guru.

Ama ez zen nitaz GUZTIZ fio.

Eta, horren ondorioz, ez zuen eskuko su-itzal-
gailua askatzeko imintziorik ere egin.

Egia zen ikastolarekin Añanako gatz haranera
joan behar genuela egun hartan, baina ni ez nintzen
ohetik hain pozik jaikitzen INOIZ.

Ez txangoa genuenean, ez geure tutorea gaixorik zegoenean, ezta gozokiak eta krispetak zerutik erortzen zirenean ere.

Hori gutxi izango balitz, klaseko motxila ere prestatua nuen ordurako, aldatzeko arropa eta ha-maiketakoa eta guzti.

Eta amak bazekien hori ez zela BATERE normala.

Zorionez, aita ere agertu zen sukaldean une horretan.

—Eskerrik asko, Niko, hau detailea izan duzuna —esan zuen, oraindik ere nagiak guztiz atera bari-rik.

Gero mahaira eseri eta ogi txigortuari mokadu ederra eman zion, bitan pentsatu gabe.

—Zer ospatzen da ba gaur? —galdetu zuen.

Hura egin zuen aitak goiz hartan lehenengo akatsa.

—Gaur ez al dugu ba ezer ospatu behar? —galdetu zion amak.

—Bai, noski... —saiatu zen aita.

Baina aitak ez zuen ideiarik ere ama zertaz ari zen.

—Familia? —probatu zuen—. Hirurok elkarrekin gaudela, agian? Maitasuna, hori beti —bukatu zuen serio asko, esku bat bihotzean.

Aitak ez zituen ikusi ni egiten ari nintzaizkion keinu guztiak, sukaldeko egutegian gorritz inguratuta zegoen datari begiratzeko.

Hori egin zuen bigarren akatsa.

—Gaur gure ezkontza-urteurrena da, artaburu hori! –bota zion amak, amorraturik—. Eta gaurko afarirako gure jatetxe kuttuna erreserbatuko zenuela espero dut.

—Bai, noski. Nola ez ba –erantzun zion aitak.

Eta, hitz gehiagorik esan gabe, ogi txigortuari beste mokadu dotore bat eman zion.

Hori egin zuen aitak hirugarren akatsa.

Ama sukaldetik ufaka irten eta lanerako prestatzen hasi zen.

—Aizu, Niko... –esan zidan aitak ahapeka, behin amak bakarrik utzi gintuenean.

—Bai?

—Jatetxe hori...

—Iazko jatetxe italiar bera da, aita.


—Jakina, noski... –Aitak buruarekin goraka eta beheraka hasi zen, barruan malguki bat balu bezala.

—Dolce Adelasia du izena –osatu nion esaldia.

—Gogoratuko ez naiz ba...

—Interneten bilatu baino ez duzu egin behar.

—Internet, bai...



—Telefonoan duzun mundu-bola baten itxurako ikono hori.

Aitak esku ahurrak airean altxatu zituen lasaitasunezko keinu batean.

—Ez larritu, Niko. Dena kontrolpean daukat —esan zidan.

Nik ez nuen uste aitak EZER kontrolpean eduki zezakeenik une horretan, baina dagoeneko etxetik irten behar nuen.

—Bazoaz, Niko? —galdetu zidan aitak—. Oraindik hamar minutu falta dira ordua izateko.

—Gaur autobusa apur bat arinago pasatuko da —berretsi nion—. Txangoa dela eta, badakizu.

Hain denbora laburrean bildu ahal izan nuen irribarrerik inozenteena zuzendu nion aitari, eta etxetik irteteko prestatu nintzen.

Jadanik atean nintzela, azken galdera bat bota nion aitari.

—Amarentzako opariren bat erosiko zenuen, ezta?

Aitaren despistatu aurpegiarekin erantzun nahi-koa izan nuen.

—Zerbait bururatuko zait, utzi nire kontura —esan nion, eta etxeko atea itxi nuen kanpotik.

Zein zaila den gurasoak hezte!

AUTOBUS ZAHARRAREN GIDARI BERRIA



Arineketa batean abiatu nintzen autobus gelto-
kira.

Erlojuari begirik kendu gabe!

Oraindik tarte bat falta zitzaidan iristeko, eta
eskola-autobusak kale kantoia jiratu eta aurrez aurre
begiratu ninduen.

Une honetara helduta, aitormen txiki bat egiteko
ordua heldu dela uste dut: nik banekien goiz harta-
koa ez zela izango eguneroko autobus bera.

Baina ez nuen espero halako autobus zatarra
izango zenik!

Karrozeriaren kolore horia herdoildua zegoen han eta hemen.

Aurreko bi argiek lo-aurpegiz begiratzen zidaten, haiek ere oraindik erabat esnatu izan ez balira bezala.

Eta motorrak kafe-makina zaharraren hotsa ateratzen zuen autobusak aurrera egin ahala.

Hain zen zaharra autobus hura, ematen baitzuen une batetik bestera amore eman eta eroriko zitzaizkiola piezak errepide gainera!

Baina ia ordua zen.

Eta, hori zela eta, geltokirako pausoa are gehiago arindu behar izan nuen.

Autobusak ere azken azelerazio kolpea egin zuen, hitzordura garaiz heltzeko.

ZAST!

Ihes-tutua askatu zitzaion orduan eta asfaltoaren kontra jo zuen, txinparta ugari sortuz.

KRA-KRA-KRA!

Gidariak esku-frenoari gogor eragin zion, tronpo dotore batekin geltokian bertan seko pausatzeko.

ÑIIIIIIK!

Autobusaren atea kirrinka zaratatsu batekin zabaldu zen nire parean.

Eta nor aurkitu nuen gidari lanak egiten?

AMONA GREGORI!!!

—Sar zaitetz, Niko! Ez dugu denborarik galtzeko. Amonari kasu egin eta salto batez igo nintzen autobusera.

HOP!

Amonak azeleragailua zapaldu zuen, eta ibilgailua zitzu bizian abiatu zen berriz, niri ondo heltzeko denborarik ere eman gabe.

Ipurdiz lurrera erori baino lehen, denbora juxtua izan nuen atzerako ispilutik nire ikastolako BENE-TAKO autobusa nola iristen zen ikusteko.

Segundo bat beranduago, eta inoiz ez nuen lortuko amonarekin elkartzea!

Amonak autobuseko irrati-komunikagailua piztu zuen.

—Amona Gregori Planetarteko Konfederazioko Aginte Zentrora deika. Entzuten al didazue?

Hau esan ondoren, amona Gregorik kabinaren albo batean zituen bi bolante gorri txikiri eragin zien, arin-arin.

Dozena erdi botoi sakatu eta beste hainbeste palanka mugitu zituen oinekin.

Eta horren ostean, SOILIK horren ostean, Flinten irudia bistaratu zitzaigun argi eta garbi airean, holograma moduko batean.

—Egunon, amona Gregori —agurtu gintuen Flintek—. Eta egunon zuri ere, Niko. A ze poza zu hemen ikustea!

Flintek ez zuen esperientzia handirik ni bezalako ume lurtarrenako hartu-emanekin. Izan ere, tira, ni neu nintzen Flintek ezagutzen zuen ume lurtar bakarra. Ahal zuena egiten zuen Flint gaixoak. Eta une horretan egin ahal izan zuen gauzarik onena begirada Aginte Gorenak luzatutako gidoira jaitsi eta bertan idatzitakoari heltzea izan zen:

—Espero-dut-lagun-asko-izatea-ikastolan-jantokiko-barazki-guztiak-jaten-al-dituzu-pitxin? —irakurri zuen doinurik gabeko ahots monotono batekin.

Ixmenek prestatutako kartoizko lelak edo barazki krema pikortsua gogoratzeak berak dardarka jarri ninduen.

Ixmene nire ikastolako sukaldaria zen.

Eta, haren sukaldaritzarako trebetasunari buruzko ideiarene bat izan dezazun, jakin ezazu DBH-koek MADMOISELLE POZOI deitzen ziotela.

Hala ere, Flinten ahalegina eskertzekoa zen beti ere.

—Kaixo, Flint! —agurtu nuen nik ere.

—Mamira jo, Flint. Zer dugu oraingo honetan? —moztu zion amona Gregorik.

Flintek bere babarrun itxurako aurpegi luzanga estaltzen zuen izerdia garbitu, eta, hitz egin aurretik, begi niniak handitzen zizkioten betaurreko erraldoiak egokitu zituen sudur-zubian.

Traje urdineko jaka bere atzamar luze malguekin haztatu, kolore bereko txapela buru gainean ondo paratu, eta, hitz egiteko zorian zegoela ematen zue-nean..., guk espero ez genuen galdera bat luzatu zigun.

—Nor da hor eserita dagoena?

—Markel naiz, jauna –bota zuen ume batek autobusaren azken ilaratik.

Markel Gerrikasoro Landabaso.

Nire mailako putzontzi liskargilerik liskargileena, hain zuzen ere.

Haur hezkuntzako umeak patiotik botatzen dituzten horietakoa, eta liburu bat zer den ez dakiten horietakoa, badakizu.

Ziur nago zure ikastolan ere egongo dela halakorik.

Gauza da ditxosozko Markel horrek klase osoa izututa zeukala.

Baina goiz hartan, bera zegoen izuturik.

Trumoia entzun berri duen txakurra baino izutuago!

—Gure lagun honek laster utziko gaitu bakarrik, ez da hala? –galdetu zion amona Gregorik Markeli, atzerako ispilutik begira.

—Nahi duzuna egingo dut, andrea –erantzun zion Markelek, kikilduta—. Baina ez minik egin, arren.

—Minik ez egiteko?! –oihukatu zuen amonak—. Jendeari min egiteko aurpegia al daukat?

Galdera latza zen hura...

Amona Gregori ezta baino gozoagoa zen.

Bizkotxo egosi berri bat baino bigunagoa barrutik!

Baina horretaz jabetzeko ondo ezagutu behar zenuen.

Eta amona Gregori ez zen erraz ezagutzen ziren horietakoa, honezkero konturatuko zinen horretaz.

Markelek ez zuen momentuan erantzun.

Horrek erakutsi zidan ez zela nik uste bezain txepela, tira.

Nik burua ezker-eskuin mugitu nuen Markeli seinale disimulatu bat bidaltzeko atzerako ispiluaren bidez, eta umea arrasto horri heltzen saiatu zen.

—Eeeeeeeez? –galdetu zuen, agian zalantza tonu handiegiaz.

Amonak azeleragailua topera sakatu zuen. Bere aurpegia ez zen oso adeitsua.

Bat-batean norabidea aldatu eta, jadanik ikastola ondoan ginela, balaztari gogor eragin zion beste tronpo ikusgarri bat egiteko.

Hori bai akrobazia itzela!

Botoi gorri handi bat sakatu zuen amonak.

—JAURTI!!! —oihukatu zuen.

Autobusaren sabaia ireki eta Markelen eserlekua ziztu bizian atera zen handik, kohetea balitz bezala.

—Amaaaaaaaaa!!! —oihukatu zuen Markel gaxoak.

Baina, Markelen garrasiaren oihartzuna itzali baino lehen, haren eserlekuari paraxut bat ireki zitzaion.

FLOP!

Handik aurrera, Markel patxadaz joan zen jaisten harik eta ikastolako patioan lur hartu zuen arte.

Hori bai abentura lagunei kontatzeko... Markel dardara egiteari utzi eta kolorea berreskuratzen zuenean, noski.

—Kontaiguzu zein den oraingo honetan konpondu behar dugun arazoa, Flint.

—Oraintxe bertan, amona!

